



LANDARBASO ABESBATZA



Landarbaso Abesbatza 1991. urte bukaeran sortu zen Erreterian, musika egiteko gogo handia zuen gazte talde baten eskutik. Gaur egun 45 abeslarik osatzen dute abesbatza, batez besteko 29 urterekin. Abesbatza, hasieratik, Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritza musikalaren menpe egon da, gipuzkoar zuzendari onenatarikoa.

Landarbasok oso programa zabala lantzen du, garai eta estilo desberdinetako bai obra profano eta baita eliz obrak ere abestuz. Landarbaso Abesbatzak sorkuntza lana eta euskal folkloreak harmonizazio lana egiten du, bere azken proiektu berritzailetan erakutsi bezala: “Konplize ditut eta...”, Landarbaso Munduan I eta II edota Landarbaso 25!. Taldearen 25. urteurrenetik, 2016tik, elkartera gehitu dira haurren abesbatza eta gazte taldea.

Azken urte hauetan ziklo, lehiaketa eta kontzertu askotan parte hartu du abesbatzak Penintsula barnean eta 2001. urtetik aurrera abesbatza nazioarte mailako lehiaketetan parte hartzen hasi da, guztira 4 sari nazional eta nazioarteko beste 14 eskuratu.



IÑAKI TOLARETXIPI

(Erreterian, 1972)

Ingenieritza Industrialean Doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Landarbaso Abesbatzaren zuzendaria da bere sorreratik.

“Erreterian Musikal” Kontserbatorioan hasi zituen bere trompeta ikasketak Jose Mari Oartzabalaren zuzendaritzapean, Donostiako Goi Musika Kontserbatorioan irakasle titulua lortu zuen.

Hondarribia, Lezo, Erreterian eta Donostiako kontserbatorioetan harmonia, kontrapuntoa, pianoa eta beste hainbat ikasketak egina da.

Hainbat kurtsuetan hartzen du parte, aipagarrienak honakoak direlarik: Herminia Laborde, Guilles Sneider eta Franz Brandt-en eskutik ahots teknikako kurtsuak eta Carl Hogest, Eric Ericson, Martin Schmit, V. Negreiros, Javi Busto, Miguel Amantegui eta beste hainbat maixuren eskutik koru zuzendaritza kurtsuak.

Gipuzkoako Abesbatza Federazioak, Tolosako Nazioarteko Leihaketaren laguntzarekin batera, 1994. urtean antolatu zuen II. Gabon Kanten Armonizazio Leihaketan epaimahaikide izan zen.

Gipuzkoako beste hainbat abesbatz ere zuzendu ditu: Itsasmin, Nahikari, Ahalegina, Landarbaso Txiki eta 1991. urtetik aurrera Landarbaso Abesbatzako zuzendaria da. 1996. urtean London-go Joyful Company of Singers abesbatz entzutetsuko partaide izan zen, Peter Broadbent-en zuzendaritzapean, zeinekin zuzendaritza eta musika-antzezpena ikasketak egin zituen.

XXII. Bela Bartok Lehiaketan (2006) Orban konposatzailearen “126. Salmoa” Interpretatzeko modu adierazgarriatik saria eskuratu zuen.

O I A R T Z U N E N

Udako XXI. kontzertua

HARRIBELTZA

Elkartearen aldeko kontzertu berezia

Done Eztebe Parrokian, 2017ko uztailaren 31n
astelehena, 19:30ean

Egitaraua

UBI CARITAS ET AMOR..... Josu Elberdin (1976)

HODIE CHRISTUS NATUS EST Javier Busto (1949)

AVE MARIA Franz Biebl (1906 - 2001)

Bakarlariak: **Jorge Vidriales eta Iñaki Mendizabal**

HELISEB VÄLJADEL Urmas Sisask (1960)

Bakarlariak: **Ainara García**

MISA DE VISPERAS. OP. 37 Sergei Rachmaninov (1873 – 1943)

n° 6 **Bogoroditse Devo**

n° 8 **Khvalite imya Gospodne**

MAITEAGOAK Xabier Sarasola (1960)

EGUZKI PRINTZAK Junkal Guerrero (1968)

VINDO Reinis Sejāns (1984)

Perkusioa: **Iñaki Zugasti**

ONLY IN SLEEP Erik Esenvalds (1977)

Bakarlariak: **Maddalen Dorronsoro**

ZUZENDARIA: **Iñaki Tolaretxipi**

Antolatzailea:



Harribeltza

HIESaren aurkako elkartea

Asociacion antiSIDA

Eskerrak:



OIARTZUNGO
UDALA



C.C. Mamut
Teléfono 943 49 18 68
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)